

17. ikasgaia.

PROZESUAREN PRINTZIPIOAK

1. Berariazko printzipioak

Aukera-printzipioa

Beharrizan-printzipioa

2. Printzipio esku-emailea

Abagune-printzipioarekin lotuta

Ondorioak

3. Ofizialtasun-printzipioa

Beharrizan-printzipioarekin lotuta

Ondorioak

4. Prozesua zuzentzeko ahalmen materialei dagozkien printzipioak

Prozesu zibila: alderdien ekarpen printzipioa

Prozesu penala: ikerketa ofizialaren printzipioa

- Instrukzioan/sumarioaldian
- Ahozko judizioan

5. Zuzentzeko ahalmen prozesalei dagozkion printzipioak

Prozesuaren aurreuposamenduen kontrola

Prozesuaren bultzada

6. Froga balioesteko sistemak

Frogaren legezko balioeste-sistema. Ziurtasun juridikoa

Frogaren balioespen askea: kontzientziaren arabera (ez arbitrariotasuna)

Espaniako sistema mistoa

1. BERARIAZKO PRINTZIPIOAK

Ikasgai honetan, bi printzipio nagusi izango ditugu aztergai: aukera-printzipioa eta beharrizan-printzipioa. Baina, halaber, bi printzipio horietatik erartortzen diren hainbat printzipio ere aztertuko ditugu; printzipio teknikoak deritze azken horiei.

Aukera-printzipioa

Prozesu horietan, interes pribatua da nagusi. Gogora dezagun printzipio hori batez ere ordena zibilean dagoela indarrean. Gizaki edo partikularren interes pribatuekin lotuta, Konstituzioak jabetza pribatua onartzen du 33. artikuluan, eta printzipio horren oinarrietariko bat da horixe. Izan ere, jabeak bere gauzarekin nahi duena egin dezake; hots, autonomiaren borondatea nagusitzen da esparru honetan. Beraz, partikularrei beren interesen inguruan nahi dutena xedatzeko aukera aitortzen die.

Beharrizan-printzipioa

Hori, ostera, prozesu penalean dago indarrean, batik bat, beraren atzean dagoen interes juridiko-publikoa dela-eta.

Dena den, une honetan, erdiko gunea delakoari buruz esandakoa ekarri behar dugu gogora; hau da, prozesu zibilaren kasuan, batzuetan, interes publikoa nagusituko da eta berarekin batera beharrizan-printzipioa –ezgaitasun kasuetan, esaterako-, eta prozesu penal batzuetan, aukera-printzipioa izango dugu oinarri –kalumnia-kasuetan, adibidez-.

2. PRINTZIPIO ESKU EMAILEA

Prozesuan ebazten den eskubide subjektiboaren izaera pribatua dago printzipio horren oinarrian, horren titulartasun pribatua, alegia.

Printzipio hori aukera-printzipioarekin zeharo lotuta dago; horren bidez, alde batetik, jurisdikzioa eta, bestetik, alderdiek prozesu zibilean duten borondatearen autonomia harmonizatu nahi da, eta honako hauek dira horren **ondorioak**:

- Alderdi batek eskatu behar du, nahitaez, jarduera jurisdikzionala martxan jartzeko, hau da, ez dago judiziorik alderdiek nahi ez badute. Alderdi horiek eskubideaz xedatzeko gaitasuna dutenak izango dira (ez Estatua, ezta hirugarrena ere).
- Prozesuaren objektua alderdiek finkatzen dute; beraz, alderdiek esaten dute epaiak zeri buruz hitz egin behar duen, zer ebatzi behar den, alegia.
- Alderdiek prozesuaren objektua erabil edo xeda dezakete, eta, horrela, prozesua nahi dutenean eman dezakete amaitutzat (adibidez, itun bat lortu dutelako prozesuari amaiera emateko).
- Organo jurisdikzionalak emango duen epaia alderdiek eskatutakoarekin bat etorriko da; hots, epailea eskaerara lotuta geratuko da.

3. OFIZIALTASUN PRINTZIPIOA

Printzipio hori beharrizan-printzipioarekin lotuta dago, eta, ondorioz, batik-bat, ordena jurisdikzional-penalean izango du eragina, eta materia batzuei dagokien interes publikoan oinarrituko da. Interes publiko horri esker, alderdiek ez dute objektuari buruz xedatzeko gaitasunik izango.

Printzipio esku-emailearen edukiaren aurka legoke printzipio hori; beraz, honako **ondorio hauek** izango ditugu:

- Alderdiek nahi ez duten arren, prozesua egon egongo da, eta, aurreko ikasgaietan aipatu genuen moduan, Ministerio Fiskala sortu da horretarako. Ministerio Fiskala alderdi akusatzailean aurkez daiteke, eta, delitu baten berri izanez gero, prozesua has dezake alderdien borondatearen aurka egon arren, delitu baten jarraipena ezin baita partikularren esku utzi. Horrez gain, organo jurisdikzionalak

notitia crimini izenekoa (delitua gertatu izanaren berri) izan eta berehala, ofizioz jarriko dute abian instrukzioa.

- Alderdiek ezin dute prozesuaren objektua finkatu, ezta xedatu ere. Izan ere, normalean, objektua izango da delitua, edo hobeto esanda, delitu horren ebazpena.
- Horrekin lotuta, oro har, prozesuak epaia eman arte jarraituko du, eta hori ofizioz egiten da.

Hori kontuan hartuta, prozesu penalean normalean biktimak nahi ez badu ere, prozesua hasiko da, eta ofizioz jarraituko du; beraz, alderdiek ezin izango dute prozesu penaleko objektuaren inguruan ezer xedatu, Ministerio Fiskalak akusazioa mantenduko lukeelako horiek prozesua amaitu nahiko balute ere. Esan bezala, delitu pribatu eta erdi pribatuak —kalumnia- eta irain-delituak, besteak beste— arau orokor horren salbuespena dira.

4. PROZESUA ZUZENTZEKO AHALMEN MATERIALEI DAGOZKIEN PRINTZIPIOAK

Puntu horri dagokionez, ikusiko dugu nori dagokion prozesuaren objektua eta prozesuaren eztabaidaren objektua finkatzea (epaileari edo alderdiei), eta, halaber, nori dagokion frogak prozesura ekartzea. Jarraian ikusiko dugunez, elementu horiek ezberdinak izango dira prozesu motaren arabera (zibilean eta penalean).

Prozesu zibilean

Prozesu mota horretan, **alderdien ekarpen printzipioa** nagusitzen da, 1/2000 Prozedura Zibilaren Legearen 216. artikuluan indarrean dagoen printzipioa, hain zuzen ere. Artikulu horrek dioenez, “auzitegi zibilek auzia erabakiko dute alderdiek prozesura ekarri dituzten egitate, froga eta uzien arabera, legeak kasu berezietarako ezartzen duena salbu”. Printzipio horrek, beraz, bai egitateei bai frogei egiten die aipamen, horiek eragina izango baitute epailearen erabakian.

Printzipio horren bidez, alderdiek beren argudioak egin behar dituzte, eta, horrez gain, beren eskaeraren funtsa ezartzeko, beharrezko egitateak ere ekarri beharko dituzte prozesura. Izan ere, berek zehaztu beharko dute prozesuaren objektua, epaitegiek ezingo baitute prozesura egitaterik ekarri.

Beste alde batetik, haiek ekarritako egitateak frogatzeko asmotan, frogabide zehatzak proposatzea alderdiei ere badagokie; izan ere, epaia ematerakoan, egitateak frogatuta dauden neurrian hartuko dira kontuan.

Beraz, epaia ematerakoan, epaileak, alde batetik, eskatutakoa (*petitum* izenekoa) eta, bestetik, eskatutakoaren zioa (*causa petendi* deritzona) hartuko ditu aintzat; biak uziarekin lotuta daude. Bi elementu horiek uziaren elementu objektiboak izango dira. *Causa petendi* egitateak izango dira, kanpoko munduan gertaturikoak, zuzenbidearentzat garrantzitsuak direnak. Eta, lehen esan dugun moduan, auzi-jartzaileak eman behar lituzke egitate horiek.

Gero, demandatuak erresistentzia eman beharko du; jarkitze horren bitartez, berak absoluzioa eskatuko du. Horretan, demandatuak egitate berriak eman ditzake, eta, hala, epaia ematerakoan, epaileak kontuan hartu beharko ditu.

Azpimarratzekoa da alderdiek (auzi-jartzaileak zein demandatuak) ekarri behar dituztela egitateak prozesura, inoiz ez epaileak, prozesuaren objektuaren zehaztapena alderdiei baitagokie.

Horrez gain, frogari dagokionez, alderdi bakoitzak baieztatutako egitateak frogatu beharko ditu; dena den, bi alderdiek egitate bat onartzen badute, ez dago egitate hori zertan frogatu; hori dela-eta, egitate eztabaidagarriak bakarrik frogatu behar direla esaten da.

Epaileak, printzipioz, ezingo ditu frogak ekarri prozesura. Hala ere, Prozedura Zibilaren Legearen 429. artikularen arabera, epaileari frogak nahikoak ez direla iruditu bazaio, alderdiei froga gehiago ekartzeko esan diezaioke; horrez gain, bere iritziz egokiak zein lirartekeen adieraz dezake. Hori ahalmen mugatutzat ikusi beharra dago, bestela alderdigabetasuna apur liteke eta.

Prozesuan aplikatu beharreko aruari dagokionez, ordea, "iura novit curia" esaera izango dugu kontuan; horren arabera, epaileak zuzenbide guztia ezagutzen du eta, kasu bakoitzean, arau egokia aplikatuko du. Arau juridikoa ez

da baliagarria objektua zehazteko unean eta, beraz, nahiz eta alderdiek prozesuan arau bat aipatzen ez duten, epaileak aplika dezake.

Prozesu penalean

Prozesu mota horretan, **ikerketa ofizialaren printzipioa** dago indarrean. Hori beharrian printzipioarekin lotuta dago, eta, horren bidez, organo jurisdikzionalari egokituko zaio prozesuaren zuzendaritza materiala. Prozesu penala arautzeaz arduratzen diren legeetan, **modu ezberdinean** agertzen da araututa printzipio hori sumario faserako eta ahozko judizioaren faserako.

Sumario aldian, epaile instruktoreak mugarik gabe jarduten du ikertzen eta frogak bilatzen; fiskaltzaren proposamenek ez dute epailea lotzen, ezta alderdiek egindakoek ere edo akusatuek egitateak onartzeagatik ere. Beraz, nahiz eta akusatuek egitateak onartu, epaile instruktoreak ikertzen jarrai dezake, egitate horiek gezurrezkoak balira bezala; izan ere, gezurrezkoak izan daitezke. Fase horretan, epaiketa eta han baliaraziko diren frogak prestatzen dira.

Ahozko judizioan, aldiz, akusazioak mugatzen du prozesuaren objektua, eta froga proposatzea eta egitea da alderdien jarduera nagusia, alderdiek finkatu dituzten egitateak egiaztatzeko. Prozedura Kriminalaren Legeak bere 728. artikuluan jasotzen du hori, eta hor esaten da ahozko judizioan alderdiek proposatutako froga-eginbideak egingo direla.

Dena den, Prozedura Kriminalako Legean, salbuespen bat aurkitu dezakegu 729/2. artikuluan: "froga-eginbideak, nahiz eta alderdiek proposatu ez, baldin eta auzitegiaren ustez edozein egitate egiaztatzeko beharrezkoak badira"; kasu horretan, alderdiek froga bat aurkeztu ez arren auzitegiak beharrezkotzat jotzen badu, froga-eginbide hori proposatu ahal izango du.

Beraz, ikerketa ofizioz egiten da, sumarioaldian epaile instruktoreak bere ekimenez jarduten baitu; hori dela eta, esaten da prozesu penalean dirauen printzipioa ikerketa ofizialarena dela.

5. ZUZENTZEKO AHALMEN PROZESALEI DAGOZKIEN PRINTZIPIOAK

Ahalmen horiek ez dute prozesuaren edukia ukitzen, prozesua bera baizik, baina formalki; hots, egintza prozesalen erregulartasun formala edo teknikoa kontrolatzeaz eta prozedurak fase batetik bestera jarraituko duela ziurtatzeaz arduratzen dira ahalmen horiek. Prozesuaren auresuposamenduen kontrola eta prozesuaren bultzada deritze ahalmen horiei.

Prozesuaren auresuposamenduen kontrola

Printzipio horren bidez, prozesuan zehar bete behar diren baldintzak edo auresuposamenduak kontrolatzen dira, baldintza horiek egon ezean prozesuak auziaren mamia ezagutzen ez duen epai batekin buka lezake eta.

Horrenbestez, baliteke prozesu guztia egitea, baina, epaia ematerakoan, auzitegia halako auresuposamendu bat ez dagoela konturatzea; eta, hala izango balitz, epaileak agerian utziko luke hori bere epaian, eta ez luke auziaren mamia ebatziko.

Prozesuaren auresuposamenduen azterketa horretaz, **ofizioz** arduratzen da epailea, Prozedura Zibilaren Legearen 425. artikulua xedatzen duen moduan.

Prozesuaren bultzada

Beste ikasgai batzuetan esan dugun bezala, prozesua egintzen segida bat da; egintza batetik beste batera pasatzeko, beharrezkoa da momentu bakoitzean izapideek aurrera jarraitzea. Ahalmen horren baitan, ikusiko dugu izapide horiei bultzada nork eman behar dien, hots, prozesua aurrera joateko eginkizuna nori dagokion.

Prozesuari jarraipen hori emateko ofiziozko bultzada –hau da, organo juridikzionalek egindakoa- edo alderdien bultzada izan ditzakegu eredu gisa. Dagoeneko esan dugu prozesu zibila hasteko auzi-jartzaileak demanda jarri behar duela (PZLaren 399.1. art.); baina, orain, prozesuaren urratsek aurrera jarraitzeko nork agindu behar duen ikusiko dugu (ez hasiera batean, prozesuan barrena baizik).

Alderdien bultzadari dagokionez, horiek epaileari eskatu beharko liokete prozesuko urrats edo fase bakoitza itxiz eta irekiz joateko. Baina, **gaur egun**, prozesu guztietan, **ofiziozko bultzada** dago indarrean, eta, ondorioz, prozesuaren urratsak aurrera joateko, organo jurisdikzionalak agindu behar du (hala dio Prozedura Zibilaren Legeak bere 179.1. artikuluan).

Dena den, ofiziozko bultzadak ez du esan nahi auzitegiak balizko helegiteak jarri behar dituenik, dakigun moduan helegiteak jartzea alderdiei dagokielako, alderdi kaltetuari, hain zuzen ere.

6. FROGA BALIOESTEKO SISTEMAK

Orain frogak balioesteko zenbait legeriatan dauden sistemak aztertuko ditugu, eta sistema horiek Espainian duten islada berariaz ikusiko dugu. Sistema horien arabera, argudioen benetakotasuna zehazteko frogei ematen zaien balioa edo eraginkortasun-maila ikusiko dugu.

Frogaren legezko balioeste-sistema

Sistema horren bitartez, frogen balioa legeak ezarritakoa izango da; hau da, legeak era abstraktuan zehaztuko du frogabide jakin bati emango zaion balioa, epailearen kontzientziak inolako garrantzirik izan gabe. Adibidez, legeak dokumentu edo agiri publiko bat egiazkotzat jo behar dugula ezartzen du (Prozedura Zibilaren Legearen 319. artikulua); ondorioz, dokumentu horretan jasotakoa egia izango da (edo egiazat hartu beharra dago), nahiz eta gure buruaren edo kontzientziaren arabera faltsua dela pentsatu.

Esaten da frogak balioesteko sistema horrek ziurtasun juridikoa ematen digula; izan ere, prozesuan froga jakin batzuk aurkeztuz gero ondorioak alde aurretik ezagutuko dira, ondorio horiek legeak jasotzen baititu.

Frogaren balioespen askea

Sistema horretan epaileak edo magistratuak erabakitzen du, bere kontzientziaren arabera, egitateak egiazkoak diren ala ez; kasu horretan,

epailea ez dago legeek ezarritako irizpideen menpean (irizpiderik ez dagoelako), ezta alderdien iritzia menpean ere.

Eredu horren arabera, epaileak bere kontzientziaz balioetsiko ditu frogak, eta, bere "esperientziaren ereduak" kontuan hartuta, berak erabakiko du egitateen artean zein diren egiazkoak.

Nolanahi ere, honako hau azpimarratu behar da: sistema horrek **ez** du esan nahi epaileak epaia ematerakoan **arbitrariotasunez** joka dezakeenik, bere hausnarketa edo gogoeta ebazpenean azaldu beharko baitu. Azalpen edo gogoeta horiek, noski, arrazionaltasunean oinarrituta egon beharko dute (adibidez, epaileak testigantza bat faltsua izan dela pentsatzen badu, hori epaian idatzi beharko du, bestela defentsagabezia-egoera sortuko litzateke eta).

Ezinbestekoa da epaileak epaia emateko kontuan izan dituen gogoetak edo oinarriak idazkian mamitzea; helegitea jartzeko aukera da horren arrazoia. Helegitea jartzeko orduan, errekurtsoaren oinarrian, hausnarketa hori oker dagoela frogatu nahiko da; hau da, epaileak egindako gogoeta horren aurka joango da helegitea, eta gogoeta hori adierazita ez badago, ezin izango da beraren aurka jo; ondorioz, babesgabetasun-egoera bat sortuko da.

Bukatzeko, esan beharra dago sistema hori munduan zehar gero eta hedatuago dagoela, eta gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari dela munduko sistema juridikoetan.

Espainiako sistema mistoa

Espainiako legeetan, **sistema mistoa** dugu: arau batzuek legezko sistema ezartzen dute, eta beste batzuek, berriz, sistema askearen alde agertzen dira. Egoera hori ordena zibilean, lan-ordenan eta administrazioaren auziekiko ordenan antzeman daiteke.

Prozesu penalarri dagokionez, frogaren balioespen askearen sistema bakarrik dago indarrean, eta hala dio Prozedura Kriminalaren Legeak 741. artikuluan: "auzitegiak epaiketan egindako frogak kontzientziaren arabera aztertuko ditu...", eta horrek auzitegiei froga guztiak beren "kritika osasuntsuaren" arabera balioesten baimentzen die.